



Bulkada

Jon Benito

Liburuari irakurketa bakarra baino ez diot egin; beraz, hartaz adieraz dezakedanak nahiko azalezkoa beharko du izan. Hala ere, zer iruditu zaidan botako dut hitzetik hortzera, lehen begiratuan kasik, nolabait esanda.

Eta liburu sinplea baina duina dela iruditu zait. Ez da barne-katarsi bat eragingo dizun poemategi horietako bat, hau da, “irakurri aurretik eta irakurri ondoren” lehengo bera izaten jarraitzen duzula egiaztatu ahal izango duzu arazo handirik gabe, tamalez. Dena dela, aldi berean, irakurketa interesgarria da. Poemategiak bere ekarpen isila egiten du eta... badoa (olatutxo baten gisa).

Beraz, badugu literatura-munduan gehiegi nabarmentzen ez den poemategi bat baina, aldi berean, halako xarma bat, izan ere, baduena. Bestalde, liburuan barneratu ahala, poemen kalitatea areagotuz doala esango nuke.

Hasierako poemetan nabarmena da egilearen “arrotz sentimendua”, bere herrian arrotz sentituko balitz bezala. Euskal Herrian (eta Lur planeta osoan) jaiotako herritar ugari esperimintatu izan dute identitate-krisi mota hori, deserrotze-moduko bat alegia. Gure kasuan, garai batean estatuko beste lurralde batzuetatik etorritako familiek euren ondorengoei utzitako herentzia pittin bat pozoituaren parte izan da; euskara galdutako euskal herritar ugariren kasuan ere berdin (beste modu batez baina), jatorriz Euskal Herrikoak izan arren. Arestiko denboretan, azkenik, munduko herrialde guztietatik etorritako emigranteak izango genituzke deserrotuen abangoardiako aintzindari berriak.

Egia esateko, ia-ia infinituak dira arrotz sentiaraz gaitzaketen arrazoiak.

Kanpotik etorritako gurasoen seme-alabak euren jaioterrira etxekotu egiten badira ere, beti geratzen dira zenbait hutsune, zenbait kontraesan (denborak nola edo hala konpondu eta gainditu egiten dituenak). Mota horretako krisirik inoiz ezagutu ez duten “euskal herritarrak” dira Euskal Herriaren etorkizuna lingustikoki arriskuan jartzen dutenak, Euskal Herrian bizi baitira Extremaduran, Gaztela-Mantxan edota Madrilen biziko balira bezain “lasai”, euskarari dagokionez. Zorionez, hori ez da liburu honen egilearen kasua. Ezta Euskal Herriko lagun askoren kasua ere.

Bestalde, gorago esan dudana, hau da, “katarsi” bat eragingo dizuten –ala eragingo ez dizuten– liburuei buruz egin dudan iruzkina, zuhurtziaz hartu behar da. Azken finean, irakurtzen ditugun liburu guztiek zergatik eragin behar digute halako “flash” bat? Edota, ikusten ditugun film guztiek zergatik jarri behar digute zalantzan “garen guztia edo gure pentsamendu guztia”? Egunero ez da “Voyage au bout de la Nuit” bat sortzen, ezta Pessoa bat edo Rayuela bat ere. Batzuetan, besteren obrari –arrazoi ilunengatik– balioa kentzearen, alderaketa gorrotagarrietan jausten gara. Eta litekeena da horrek niretzat ere balio izatea (baina baita beste batzuentzat ere, ziur aski...).

Autore-zinemagintzak beti eskaini behar du maila ona; bestela, nekez mereziko du “autore-zinema” etiketa. Zera esan nahi dut: egile baten bagaje intelektualak (eta berdin dio idazle, zinegile, eskultore edo olerkari izatea) maila jakin bat erdiesten duenean,

ezinezkoa da egile hori gure aurretik igarotzea itzal ziztrin bat ere utzi gabe. Jon Benitok bere poemetan gauza askotxo aditzera ematen dituela esan nahi dut, batez ere erne dagoen irakurlearentzat... Eta liburu honek euskal literaturari ekarpen diskretua egiten badio ere, abiapuntu interesgarri eta duin batetik egiten du aurrera.